

## Biteriko ikastaroetako zerrendak atera dira eta matrikula egin behar da orain

■ Guztira 633 pertsonek egin dute aurrematrikula ■ Zozketa egin eta zerrendak atera dituzte eta orain matrikula egin behar dute aukeratuek ■ Matrikula irailaren 16ra arte dago egiteko aukera.

**BITERIKO** ikastaroetan matrikula egiteko sasoia izaaten da iraila. Iraila hasiera ikastaro hauetan aurrematrikula egiteko garaia izan zen eta orain matrikula definitiboak egitea tokatzen da. Ikastaro hauetan guztira 633 pertsonek egin dute aurrematrikula eta orain jende guzti hori antolatzen ari dira. Izena eman duten pertsonek ikastaroetan onartuak izan diren jakiteko Biterin dauzen zerrendak begiratu behar dituzte eta matrikula egin beharko dute, baldin eta onartu baditzute.

**Matrikula osteguna arte**  
Ikastaro batzuetan zeuden plazak baino jende gehiago apuntatu da eta ikastaro horietan nor onartzen den jakiteko zozketa egin dute. Zerrenda kontsultatu eta onartuta dagoen jendeak osteguna bitartean egin beharko dute matrikula: goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Beste ikastaro batzuetan ez dira plaza guztiak bete eta horietan apuntatu direnek ere matrikula osteguna bitartean egin beharko dute. Gainera ikastaro hauetan bete arte

edenork eman ahal izango du izena. Ikastaro hauetan plastika haurrentzat (6-9urte), plastika haurrentzat (9-12 urte), zeramika, dantzaga garaikidea (goizetan), ahots teknika, eskulanak, harri taila eta beiran egindako lanak.

**Zerrendan zai**  
Jende asko apuntatu den ikastaroetako zerrendetan onartuta ez dagoen jendea ere agertzen da eta hauetan ikastaroetan sartzeko aukera izango dute, baldin eta norbaitek atzera egingo balu. Aukera hori badagoen ja-

kiteko ostiralean, hilaren 16ean, Biterira joan behar da galdezera eta zortea duena aurrematrikula egindako ikastaroan sartuko da.

**Talde gehiago sortu**  
Ikastaro batzuetan beste talde bat sortzeko adina jende apuntatu da eta horiek dira: tai-chi, egur taila eta dantza garaikidea. Ikastaro horietan aurrematrikula egin duten pertsonek eta zerrendan zai daudenek Biterira joan beharko dute talde berri horietan sartzeko zein aukera duten jakiteko. □

## Gitarra eta txistu klaseak hasiko dira

KANTUZ Musika Eskolako gitarra eta txistu klaseak astera dijoaz eta jakinarazi dute izena eman nahi duenak irailaren 24ra bitartean duela hori egiteko aukera. Izena emateko Udaletxeko 2-garren solairura joan behar du eta ordutegia da: goizeko 09:00etatik 13:00etara. Informazio gehiago behar duenak telefono hauetan ditzake: 943-337025 (goizetan) edota 943-333212. □

## MENDIRIZ MENDI

### Espigüetera irteera

IRAILAREN 18an Palentziako Espigüete mendira joateko irteera antolatu du Mendiriz Mendik. Mendiak 2.450 metro ditu eta asteburu-pasako irteera izango da. Autobusa eguerdiko 14:00etan aterako da Atseginegitik. Izena eman nahi duenak irailaren 16a, osteguna, baino lehen egin beharko du Iturregi plazako lokalean, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. □

## Ttarla datza taldeak matrikula epea zabaldu du

■ Osteguna arte dago aukera matrikula egiteko eta Biterin egin behar da arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara ■ Ttarlak salatu du Gartzia Goldarazen duten lokala miatu dutela.

**TTARLA** Dantza Taldean hasi nahi dutenek matrikula egiteko aukera izango dute gaurtik osteguna arte, hilaren 16ra arte. Izena eman ahal izango dute 2000 urtea baino lehenago jaio diren haurrek. Matrikula egiteko Biteri kultur etxera joan behar da eta Ttarla Dantza Taldeko arduradunak han izango dira arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara.

**Lokala miatu**  
Ttarla Dantza Taldeko kideek Kronikari adierazitakoaren arabera larunbat goizean Gartzia Goldarazeko baojan duten lokalera joan ziren eta bertan hainbat orri hankaz gora aurkitu zituzten lurrean. Lokalera

### LOKALA MIATU

“Batez ere diru kontuak eta sozio liburuak dira hankaz gora agertu diren dokumentuak”

zerraila hautsita sartu ziren eta Ttarlako kideek adirazitakoaren arabera batez ere diru kontuak eta sozio liburuak dira hankaz gora agertu direnak. Bestela balioko ezer ez dutela eraman esan dute, ordenadoreak, jantziak, grabadora, eta horrelako gauzak ukitu gabe daudela diote. □



Paperak Iurrean botata agertu ziren bulegoan.

## Auzo tailerrak martxan

AUZO tailerretan parte hartu nahi duten haurrek izena emateko aukera izango dute asteazkena bitartean. 6 eta 12 urte bitarteko haurrek eman dezakete izena eta auzo elkartetako lokaletan egin behar da izena ematea. Parte hartzea dohainik da. □

## AEKn matrikulatzeko epea zabalik

AEKn matrikula egiteko epea ireki da. Izena emateko Larramendi kaleko 11 zenbakira joan behar da edota telefono hauetara deitu daiteke: 943-557801 eta 943-557879 telefonoetara. Izena emateko epea hilaren 30ean bukatzen da eta ordutegia da: goizeko 09:00etatik 13:00etara edota 17:00etatik 21:00etara. □

Hernaniko kronikako laguntzaile:

**ORAUNE PROMOCIONES**

Telf.: 943 551494 / 943 551912  
Fax: 943 551130

**GESTORIA  
ZULAIKA  
ASESORIA**

Kardaberaz 68  
Hernani 20120

**HERNANI  
HIZKUNTZAK**  
(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guzintontzat Advanced eta First azterketak gainditzeagatik.

**DATORREN  
IKASTURTERAKO**

**MATRIKULA ZABALIK**

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

**musika eskola  
DOINU-ZALE**

KARABEL AUZOA, 4 • behe ezkerra  
943 33 12 33 - 20120 HERNANI

Musikaren lenguia  
Pianoa  
Akordeoia  
Pandereta  
Bateria Modernoa

Tronpetta  
Triki-tixa  
Kitarra  
Abesbatza  
Armonia

**MATRIKULA ZABALIK:**  
IRAILAREN 6tik 17ra. Arratsaldetan, 16:00etatik 20:00etara.  
Ibilbideko ikasketa bereziak ~ TALDE TXIKIAK ~ MUSIKA LENGUAIA 4 URTELIK



4.800 litro zerbeza saldu dira ostegunetik iganderako Zerbeza Ferian.

## Zerbeza feriak uste baino erantzun hobea izan duela dio Errugbi elkarteak

■ Aurreneko urtea izanagatik ez zekiten ondo zein izango zen erantzuna baina oso pozik daude ■ Orain esponsor bila dabilta falta diren gastuak kubitzeko.

ZERBEZA feria pasa den igandean bukatu zen eta feria antolatu duen Errugbi elkartearren aurreneko impresioa da uste baino harrera hobea izan duela. Aurreneko aldia da Errugbi elkarrekin zerbeza feria antolatzen duela eta adierazi dutenez ez zekiten oso ondo nola aterako zen, baina egun hauetan ibili den jendea ikusi eta gero oso pozik daude.

### 4.800 zerbeza litro

Errugbi elkartea ez da oraindik bildu zerbeza feriari buruzko balorazioa egiteko baina gutxi gora beherako datuei buruz galdetuta diote 4 egun hauetan 4.800 bat litro zerbeza saldu direla. Janariari buruz galdetuta 700 bat kodilo erre dituztela diote, eta behin baino gehiagotan faltan izan dituztela.

Saltxitak ere zientoka serbitu dituzte, guztira 2.700 bat.

### Jendetza bildu da

Eguraldiak lagundu ez badu ere zerbeza feriara jende asko hurbildu da. Errugbi elkarteko arduradunek diote lekuak ere aproposa izan dela jendea errakartzeko garaian. Egun hauetan jarri dituzten mahaiak kontatuta, guztira 1.800 bat ahulki jarri dituzte eta zutik ere jende mordoa ibili da.

Jende gehiena bildu duten egunak izan dira ostirala eta larunbata. Egun horietan kanpotik jendea ere etorri da ferian trago batzuk hartzera. Ostegunean batez ere herrikoia izan zen ferian bildu zen jendea eta igandeari buruz diote, uste baino jende gutxiago etorri dela. Izan ere, igandean Hernanira etortzen diren gazte

koadrilak espero zituzten baina ez zen horrelakorik gertatu.

Lanean ere jende asko ibili da guztira 120 pertsona aritu dira, orain errugbian aritzen direnak eta garai batean aritutakoak.

### Esponsor bila

Errugbi elkartea adierazi du ferian bildutako diruarekin nahikoa izango dutela temporada hasteko baina orain esponsor bila dabilzala temporada pasa ahal izateko. Urteroko gastuetaz gain, aurten aurrekontua 5 milioi pezeta igo da, izan ere aurreneko taldea mailaz igo da. Honek gastua asko igotzen du batez ere taldeak Hernanitik kanpo jokatzen duenean. Hala ere suertea izan dutela diote partidu gehienak etxean jokatzea tokatu zaie-eta. □

## JUBILATU ETXEA

### Zahartzeak ekartzen dituen aldaketei buruzko hitzaldia ostegunean

ZAHARTZEAK ekartzen dituen aldaketei buruzko hitzaldia izango da datorren ostegunean, hilaren 16ean, Goiz Eguzki zaharren egi-

tzan. Hitzaldia Asun Rodriguezek emango du eta Kutxa Ikasgelak da antolatzalea. Hitzaldia arratsaldeko 19:00-eten hasiko da. □

### Saria zuten ONCEko boletoak saldu ziren pasa den ostiralean Hernanin

SARIA zuten ONCEko boletoak saldu ziren Hernanin pasa den irailaren 10ean, ostiralean. Boleto bakoitzeko 600 euro eraman dituzte boleto horiek erosi zituztenek eta saria zuen zenbakia 23.571 izan zen.

Boletoa Iñaki Aldabek saldu zuen eta egun horretan Zapa kalea eta Kale Nagusia iskina egiten duen horretan

aritu zen lanean. Guztira 72.000 euro banatu direla adierazi du saltzaileak eta saria oso banatuta dagoela ere bai. Kliente gehienek kuboi bana edo bina eraman zituztela dio Aldabek eta 10 kupoi erosi zituenik ere badagoela adierazi dio Kronikari. Iñaki Aldaberri poza izan da dirua eguneroko klienteek eta familiaoek eraman dutela. □

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103
- Alcohólico anonimo: 943 331103

### FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 ☎ 943 336077
- Gauetza: Orube Lasarte. Jaizkibel plaza 2 ☎ 943 362652

## IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, acupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko pertsona behar da. Goizetan egingo luke lana. Deitu: 689 144 881

AUXILIAR Administratiboa. Eusko Jaurlaritza, Udaletxea: Zarautz (6 plaza), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informa zaitez: 943 43 41 27

TXOFERRAK. Plaza fijoak Eusko Jaurlaritza, Udaletxe, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

SUKALDE laguntzaileak, garbitzaileak, serbitzariak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, eskolatzen.. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

HAURTZANDEGI publikoak, behar dituzte: irakasleak, edukatzaileak, zaintzaileak, asistentak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

LIBURUTEGIAK, rezepzionistak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

BASOZAINA, 17 plaza, Administrazio Publiko Saila. Informa Zaitez: 943 43 41 27

KONTSERJEAK, Ian postuak, Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Eraikuntza publikoak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

SUHILTZAILE. Postu libreak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko parketan. Kondizio ekonomiko ezin hobeak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

REZEPZIONISTA-Telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritza eta Udaletxeetan. Laster hasteo. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

## KRONIKIA

